

**FORU DEKRETUAREN PROIEKTU HONEN HERRITARREN PARTE-HARTZE
PROZESUAREN TXOSTENA: XX/XXXX FORU DEKRETUA, HONAKO HAU ALDATZEN
DUENA: 37/2014 FORU DEKRETUA, APIRILAREN 30EKOA, NAFARROAKO FORU
KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASLE
KIDEGOEI DAGOZKIEN LANPOSTUEN HORNIDURA ARAUTZEN DUENA**

Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeak, 13. artikuluan l) apartatuan, eskubide eta betebeharrei buruzkoan, herritarrek aplikatu beharreko legeriaren arabera eta modu eraginkor eta errealean parte hartzeko eskubidea jasotzen du. Maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Lege horrek indarrean mantentzen ditu Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko ekainaren 21eko 11/2012 Foru Legearen I., IV. eta VI. tituluak. Ildo horretan, ekainaren 21eko 11/2012 Foru Lege horren 44. artikulua, "Herritarren parte-hartzea eta elkarlana" izeneko IV. tituluaren barnean dagoenak, xedapen orokorrak egitean parte hartzeko eskubidea jasotzen du. Hori oinarri hartuta eta aipatutako aurreikuspenetan jasotako eskubidea gauzatzeko aldera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasleen kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura arautzen duen apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretua aldatzen duen foru dekretuaren proiektua herritarren eskura jarri da, Gobernu Irekiaren atarian argitaratuz.

Behin-behineko testua eskuragarri egon da 2021eko otsailaren 25etik martxoaren 17ra arte, eta helbide elektronikoa bat gaitu da (rjurpers@navarra.es), epe horretan ekarpenak eta iradokizunak telematikoki aurkezteko. Halaber, Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez ere jaso dira ekarpenak.

Epe horretan, ekarpen hauek jaso dira:

A. 11 ekarpen, apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuaren 6.2 artikuluan jasotako araubide iragankorra mantentzea eta eguneratzea eskatzen dutenak.

Apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuaren 6.2 artikulua honako hau arautzen du: "... otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuan ezarritako sistema iragankorrean oinarrituz, ingelesa, frantsesa eta euskara espezialitateetako irakasleen kidegoetan sartu ziren funtzionarioek, behin betiko lehen destinoa eskuratu ez badute, borondatez eskatu ahal izanen

dituzte beren oposizioko espezialitateko hizkuntzari dagokion hizkuntza eskakizunarekin zehazten diren beste espezialitate bateko lanpostuak...”.

Araubide iragankor horrek Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa ezartzearen pareko iraupena izan zuen; lehen xedapen gehigarriaren arabera, bost urtekoa zen. Ondorioz, otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuan araututako araubide iragankorraren arabera irakasleen kidegoetan sartu ziren pertsonak soilik baliatzen ahalko lukete apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuaren 6.2 artikuluan ezarritakoa. Hau da, agindu hori ezin zaie aplikatu aldi iragankor hori amaitu ondoren irakasleen kidegoetan sartu diren pertsonari.

Gaur egun, artikulua hori bi pertsonari baino ez zaie aplikatuko, eta, beraz, badirudi jada bete duela bere helburua. Beraz, bi aukera omen daude: pertsona horiek ez dute erabili artikulua horretan aurreikusitakoaren onuradun izateko aukera, baldintza horietan egindako lekualdatze-lehiaketetan parte hartuz,; edo ez da zehaztu lanpostu hutsik, artikulua hori aplikatuz betetzen ahal zutenik.

Bestalde, artikulua honen aplikazio-eremua zabaltzeak eta aldi iragankorraren muga kentzeak berekin dakar espezialitate jakin batean sartu diren eta espezialitate horretan behin betiko destinoa lortu ez duten pertsonak destino hori lortu ahal izatea beste espezialitate batzuen bidez. Hala ere, horrek bidegabekeria ekarriko luke espezialitate horretako funtzionario titularrentzat, eskura dituzten espezialitateko lanpostuak murriztuko bailirateke, eta horrela, beste espezialitate bateko irakasleentzat zailagoa izango bailitzateke behin betiko lanpostu bat eskuratzea.

B. 2 eskaera, egiaztagiri iragankorra kentzeko eskatzen dutenak.

Atzerriko hizkuntzen egiaztagiri iragankorra sortzeko helburua izan zen atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak garatzea eta ezartzea, estatuaren eskumeneko oinarritzko arau-esparruak ez baitu aukerarik ematen irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko atzerriko hizkuntzen ezagutza egiaztatuta.

Hala ere, praktikak erakutsi du egiaztagiri iragankor horrek birtualtasun eskasa izan duela lanpostuak behin-behinean betetzeari dagokionez. Geroago ikusiko den bezala, sindikatuek egiaztagiri hori kentzea proposatu dute Mahai Sektorialean. Beraz, bai parte har-

tzeko prozesu honetako ekarpenak, bai sindikatuen proposamen horiek ikusita, egiaztapen iragankor hori kendu egiten da (eta, ondorioz, 2024-2025 ikasturtera arte luzatzea ere bai, hasieran proposatu bezala). Kentze horri lotutako kontuarekin amaitzeko, neurri hau hartzen da: atzerriko hizkuntzaren ezagutza-maila B2 baten baliokidea duten lanpostuak (32/2013 Foru Aginduaren I, F edo ALE profila) aldi baterako betetzeko aukerak iragankorra izateari utziko dio eta horrelakoa bihurtuko da. Era berean, aurreikusten da egiaztagiri iragankor hori lortu zutenei ofizioz egiaztatzea aipatutako hizkuntza-eskakizuna.

C. 289 ekarpen, PI, PF edo PALE eskakizuna betetzen dutenek PI(I), PF(I) eta PALE(I) eskakizuna dutenen aurrean lanpostuak hautatzeko lehentasuna izatea eskatzen dutenak.

Egiaztagiri iragankorra (PI(I), PF(I) eta PALE(I)) kentzen denez, eskaera hori indargabetzen da, eta lehentasuna izanen da atzerriko hizkuntzaren PI, PF eta PALE hizkuntza-eskakizuna dutenentzat, I, F edo ALE dutenen aldean.

D. Nafarroako Institutuetako Zuzendarien Elkarteak eskatu du uztailaren 6ko 225/1998 Foru Dekretua indargabetu edo aldatzen duen xedapen bat sartzeko, ikasturtearen hasieran, hau da, irailean, ikastetxe bakoitzeko sail bakoitzaren barruan taldeak eta gaiak banatzeko betebeharrari dagokionez.

Uztailaren 6ko 225/1998 Foru Dekretuaren 19. eta 28 artikulua aldatzea proposatzen da. Foru dekretu horren en bidez, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, Lanbide Heziketa eta Lanbide Hastapeneko Programak irakasten dituzten ikastetxe publikoetako irakasleen lanaldia eta ordutegia erregulatu ziren.

Gaur egun, azterketen ezohiko deialdia ekainean egiten da, irailean egin beharrean. Horri esker, lanpostuak udako oporrak baino lehen banatu eta bete daitezke, eta irailaren 1erako prest dago ikasturte osorako ordutegia.

Neurri horrek ikastetxeen antolaketa errazten du, eta, beraz, onartu egiten da udako oporrak baino lehen ikastetxe bakoitzeko sail bakoitzaren barruan taldeak eta gaiak banatzeko aukera.

Proposamen hori apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuaren xedearen barruan sartzen da, haren 1. artikulua ezartzen duen bezala, hau da, irakasle lanpostuak betetzeko azken urratsa da. Beraz, uste da uztailaren 6ko 225/1998 Foru Dekretuaren aldaketa ezin hobeto egokitzen zaiola orain aztertzen ari garen arauari, bai formalki, bai materialki.

E. Sindikatuen iritzia ere jaso da. Horretarako, unibertsitateaz kanpoko irakasleen mahai sektorial bat egin zen 2021eko martxoaren 4an, eta beste bat 2021eko martxoaren 23an. Espedientean jasota daude bilera horien aktak eta ziurtagiriak.

Erakunde sindikalek egindako ekarpenak honela laburbil daitezke:

a) 2. artikulua.

- a. 2.1 artikulua. LABek adierazten du aipatzen diren arlo estrategikoak gaur egungo hezkuntza metodologiak izan beharko liratekeela, ebidentzia zientifikoetan oinarritzen direnak eta Europa mailako azken aurrerapenekin bat datozenak, eta horiek ikastetxeekin adostu beharko liratekeela. STEILASek eskatzen du artikuluen testua gehiago zehazteko eta gutxienez hilabete emateko, proiektuak aurkezteko. ELAk uste du testuak bat egiten duela sindikatuak ildo horretan lehenago egindako alegazioekin.

Beste urte batzuetan onartzen ziren zerbitzu-eginkizunen kopuruak, elkarren artean oso heterogeneoak izanik, helburuak gero eta gehiago sakabanatzea eragin du. Apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretua aldatzeko proiektuaren bidez, emakida-prozeduran aurretiazko izapide bat sartu nahi da, non zuzendaritza nagusiak Hezkuntza Departamentuaren zer arlo estrategiko sustatu nahi duten adieraziko baitute, eta horiekin bat egiten ez dutenak ez dira deituko.

- b. AFAPNAk eskatzen du argitu dadila zer proiektutan luzatuko den iraupena 3 urtera. Hezkuntza Departamentuak hauxe uste du: proiektu edo programa hauei dagozkien lanpostuak zerbitzu-eginkizunen araubidean hornitzen ahal dira, ezartzen diren ikastetxean, foru dekretuan ezarritakoarekin bat, eskuarki eta gehienez ere bi ikasturtetan. Aldez aurretik arrazoituta bakarrik eta salbuespen gisa, eskumena duen zuzendaritza nagusiak hiru urtera luzatzen ahalko du zerbitzu-eginkizuna eskatzen duten programa eta proiektu horien iraupena.

Hau da, kasu zehatz bakoitzean, zuzendaritza nagusi eskudunak arrazoitu beharko du zergatik luzatzen diren zerbitzu-eginkizuna behar duten programak eta proiektuak bi urtetik hiru urtera.

- c. STEILASek eskatzen du gutxienez hilabete bat emateko proiektua aurkezteko. Halaber, eskatzen du 3.4 puntuan idazketa berrikusteko, halako moduan non bermatuko baita kidegoen eta espezialitateen baldintzak ahalik eta zabalenak izanen direla, parte-hartze irekia eta gardena errazteko. Mahai Sektorialean, Administrazioak erantzun zuen testua berrikusiko zela eta proiektuak aurkezteko epea deialdi bakoitzean zehaztu behar zela, baina ez zela komeni foru dekretu mailako arau baten bidez epe hori mugatzea.
- b) 3. artikulua.
- a. ANPEk eskatzen du behin betiko destinoa ez kentzeko irakasleentzako laguntza zentroetako eta baliabide zentroetan zerbitzu-eginkizunetan bost urteko bigarren aldi hasten diren funtzionarioei.
- Hezkuntza Departamentuaren ustez, behin betiko destinoa galtzen da zerbitzu-eginkizunen araubidean 5 urteko egonaldia egin ondoren eta jarraian bost urterako bigarren aldi bat zerbitzu-eginkizunetan eskuratu ondoren. Horrek esan nahi du bere destinotik kanpo gutxienez 6 urtez egon dela eta segur aski 10 urtez. Gure ustez, aski denbora da behin betiko lanpostuaren erreserba bukatutzat emateko. Era berean, gogoan izatekoa da zerbitzu-eginkizun hauetan parte hartzea borondatezkoa dela eta errespetatu behar dela gainerako langileek lanpostu horiek eskuratzeko duten eskubidea; izan ere, lanpostu horien titularrek urte batzuk daramatzate lanpostu horiek bete gabe. Horregatik guztiagatik, ezin da ekarpen hau onartu.
- Azkenik, foru dekretuak jada aurreikusten du onura bat egoera horretan daudentzat, lekualdatze-lehiaketetan parte hartzen baitute herria edo eskualdea aukeratzeko lehentasuna izanda.
- c) 4. artikulua.
- a. 4. artikulua e) letrari dagokionez, LAB ez dago ados, haien arabera lanpostuak blokeatuta geratzen direlako eta ezin izanen delako inoiz behin betiko destino-rik egon, lekualdatze-lehiaketaren bidez bete beharreko lanpostu hutsik ez badago. Ildo beretik, STEILASek eskatzen du atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak dituzten ikastetxeetan zerbitzu-eginkizunetatik baztertze.
- Hezkuntza Departamentuak adierazten du bi gai independente direla eta zerbitzu-eginkizunek ez dutela oztopatzen lanpostu horiek lekualdatze-lehiaketaren bidez betetzea.

- b. AFAPNAk proposatzen du seme-alaba adingabea zaintzeko zerbitzu-eginkizuna luzatzea haurrak 6 urte bete arte. Hezkuntza Departamentuak uste du badirela lana eta familiako eginkizunak batera eramateko beste neurri batzuk, hala nola doako eskolatzea hiru urtetik hasita eta zerbitzuaren beharren mende ez dagoen lanaldiaren murrizketa adingabeak hamabi urte betetzen dituen arte.
- d) 6. artikulua.
- a. Foru dekretuaren proiektuan 6.2 artikulua ezabatzen da, lehen azaldu den bezala. CCOO, ANPE eta AFAPNA sindikatuek artikulua hori mantentzea eta eguneratzea proposatzen dute, halako moduan non ez zaien bakarrik aplikatuko 276/2007 Errege Dekretuan aurreikusitako aldi iragankorrean sartu ziren langileei, baizik eta geroago sartu arren behin betiko lehen destinoa lortu ez dutenei ere. STEILASEk haxe proposatzen du: “3 urte igaro ondoren, behin-behineko destinoa duten funtzionarioek parte hartu ahal izatea beren gaikuntzari lotutako edozein hizkuntza edo espezialitatean”. ELA eta LAB ados daude Hezkuntza Departamentuak proposatutako aldaketarekin. Hezkuntza Departamentuak gai horri buruz duen jarrera txosten honetan azaldu da lehenago.
 - b. STEILASEk proposatzen du praktiketako langileek destinoa aukeratzeko duten eguna jotzea kidegoan sartzeko datatzat. Gai hori estatuko legeriak arautzen du, eta horrek eragotzi egiten du praktikak gainditu aurreko egun bat izatea funtzio publikoan karrerako funtzionario gisa sartzeko data.
- e) 10. artikulua.
- a. AFAPNAk eskatzen du praktikaldia laburragoa izatea eta bitarteko gisa lan egingadako denbora kontuan hartzea. Lehenengoari dagokionez, egokiagozat jotzen da gai hori deialdi bakoitzaren esparruan arautzea; eta, bigarrenari dagokionez, sarrera arautzen duen estatuko araudiak ez du horrelakorik onartzen.
 - b. STEILASEk 10.2 artikulua ezabatzeko eskatzen du, konparaziozko bidegabeberia baita hizkuntza-eskakizuna ez den beste eskakizun edo espezialitate bat duten pertsonentzat. Halaber, proposatzen du, 3 urte igaro ondoren, behin-behineko destinoa duten funtzionarioek parte hartu ahal izatea beren gaikuntzari lotutako edozein hizkuntza edo espezialitatean. Era berean, eskatzen du behin-behinekotasun egoeran dauden izangai adina lanpostu huts bermatzeko ondorio praktikoetarako. Horri dagokionez, adierazi behar da lan-eskaintza publikoen plangintzak kontuan hartzen dituela hezkuntza sistemaren premiak, praktiketako destinoa edo behin-behineko destinoa duten funtzionarioek behin betiko lehen destinoa lortu behar duten espezialitate eta hizkuntza bakoitzean. Alegazio hori

onartzeak espezialitate eta hizkuntza batean sartu diren izangaien aukerak murriztea ekarriko luke, beste batzuetan sartu direnen alde; beraz, ezin da proposamena onartu.

- c. ELAk ez du artikulua hori aldatzea nahi, atzerriko hizkuntzetan ikasteko programaren kontra baitago aurreko aldi batzuetan azaldutako arrazoiengatik; beraz, programa horien beharretara egokitutako arau-egitura ezartzea ahalbidetzen duen araudi oro baztertzen du.
- f) 11. artikulua.
ANPEk egiaztagiri iragankorra kentzeko eskatzen du, eta, eskaera hori onartzen ez bada, PI, PF edo PALE profila egiaztatzen duten pertsonen lehentasuna emateko.
Hori bera eskatu duten partikularren eskaerei emandako erantzunean ere, Hezkuntza Departamentuak egokitzen jo du egiaztagiri iragankorra kentzea, eta, beraz, proposamen hori indargabetzen da.
- g) 12. artikulua.
ANPEren ustez, artikulua horrek ez du izateko arrazoirik.
Artikulu honetan, iragandako denbora-tarte batean aplikatu beharreko araubide bat jasotzen da, eta, beraz, ez da aplikagarria egoera berrietan. Hala, kontuan hartuta foru dekretuaren proiektuaren xedea foru dekretua aldatzea dela, eta ez arau berri bat, ez da kaltegarria manu horri eustea.
- h) Lehen xedapen iragankorra.
CCOO aldi iragankorra luzatzearen alde agertzen da; ELA, ANPE, STEILAS eta LAB sindikatuek, berriz, egiaztagiri iragankorra kentzeko eskatzen dute.
Ekarpen horiek txosten honetan bertan, gorago, erantzundakotzat jotzen dira.

Iruñean, 2021eko martxoaren 23an.

HEZKUNTZA BALIABIDEEN
ZUZENDARI NAGUSIA

(Sinadura jatorrizkoan dago)

Begoña Unzué Vela